# Atxarte 2000.urtea

*ATXARTE ixilean dago, lasaitasunezko momentuan, berrizketarako proiektua egin arte iraun dezakeena, eta honetarako lau hilabetetako epea dago. Eta ez noa historiaren gainean hitzegitera, historia suhargarria, gure eukal lur bedeinkatu honetan gertatzen diren beste asko bezalakoa. Etorkizunari buruz hitzegitera goaz; mendizaleek, kontzentrazio izugarri haren egunean, Azaroaren 24.ean aritza landatzean irudikatzen hasi ginen etorkizuna. Eta etorkizun hori egiten gu geu ere hasi gara Federakundearen proiektua aurkeztean harrobien berrizketarako ideia-lehiaketara.*

*Lagun nazazue Atxarteren parajea hiru ikuspuntutatik fotografiatzera. Hasten gara lehen planu batekin, distantzia laburrera. Makroa erabili beharko da eta flasha piztu eta oso ondo enfokatu, Atxarteko harrobitik 500.000 tonelada harri ateratzeko leherketak izango direneko lehen urte t'erdi honetan gertatzen dena kontrola dezagun, Atxa txikiren berrizketarako lanak hasten diren bitartean. Eske, egia esan, oso egoera arriskutsua da, ideia-lehiaketan honen «light» den proiektu bat, «bai, baina itxaron ezazu pixka bat»eko proiektu bat sariduna suertatzean.*

*Bigarrena argazki artistikoa da, asmamen handia bota behar zaionekoa. Benetako etorkizuna hasiko da azken leherketa egiten den momentutik aurrera. Orduan Atxarte bihurtuko da «Urkiolako Atea». Slogan polita da, saltzen duena. Eskatzen dugu hartarako guztien elkarkidetza, ideia-lehiaketa ireki eta iraunkorrean; eskatzen dena zera da, harrobien bi plazen husgune izugarriak berriztatzeko ideia erabilgarriak biltzea. Ibili dira tartean batzu: mendizaletasunaren museoa, mendizaleen batzarretarako jauregia, espedizioen emaitzak erakusteko tokia, ... harrobien museoa ere entzun da nonbait (Estokolmoko sindromea edo).*

*Baina, lurra zapaltzeko, angular handiz, oso handiz ateratako argaki bat behar da ere. Ikusi dadila Atxarte Urkiolako Parke Naturalaren barruan. Begiztatu daitezela Natur Baliabideak Antolatzeko Egitamuaren edukiaren zortzi puntuak. Eta urtebete barru, nabaritu dadila Parkea Kudeatzeko Egitamu Nagusia. Eta gehiago oraindik, zeren azken finean Euskadin lekune babestuak ezartzeko politikaren emaitzen arauera izango bait da etorkizuna (Txingudi, Urdaibai, Valderejo, Gorbea, Leizaran, ... Belagoa, Bardeak... eta besteak). Argi dago egon konpromezu konplexua dela populazioa lekune babestuetan integratzea area txikia, humanizatua, kongestionatua, deprimitua... eta esperantzatua denean. Ikasi behar dugu XXI. mendearekin bizitzen.*

# Atxarte año 2000

**ATXARTE está en silencio, en un momento de pausa que puede durar hasta que se elabore el plan de restauración, para el que hay un plazo de cuatro meses. Y no voy a hablar de historia, una historia apasionante, como muchas de las que ocurren en esta bendita tierra nuestra. Voy a hablar de futuro: ese futuro que también los montañeros empezamos a dibujar al plantar el roble el 24 N, el día de la gran concentración. Y un futuro que también nosotros hemos empezado a hacer al presentar el proyecto de la Federación al concurso de ideas para la recuperación de las canteras.**

**Acompañadme a fotografiar el paisaje de Atxarte desde tres enfoques. Empezamos con un primer plano a una distancia muy corta. Habrá que utilizar el macro y encender el flash y enfocar muy bien para controlar qué es lo que pasa en este primer año y medio que seguirá habiendo explosiones para sacar 500.000 toneladas de piedra de la cantera de Atxarte, mientras empiezan los trabajos de recuperación de Atxa txiki. Y es que es una situación peligrosa, la que resulta de haber premiado en el concurso de ideas un proyecto «light», de «sí, pero todavía no».**

**La segunda es una foto artística, a la que hay que echar mucha imaginación. El futuro empezará verdaderamente el día que explote el último barreno. Atxarte podrá convertirse entonces en la «Puerta de Urkiola». Es un slogan bonito, que vende. Pedimos, para ello, la colaboración de todos, en una especie de concurso de ideas abierto y permanente: se trata de recoger sugerencias útiles para reconvertir los huecos inmensos de las dos plazas de cantera. Ya se han barajado ideas: museo del alpinismo palacio de reuniones de montañeros, exposición de resultados de expediciones..., museo del parque de Urkiola, exposiciones de la naturaleza... incluso se ha oído hablar de un museo de las canteras (debe ser el síndrome de Estocolmo).**

**Pero, para pisar en el suelo, hace falta también una foto sacada con un gran angular, muy grande. Que se vea Atxarte dentro del Parque Natural de Urkiola. Que se contemplen los ocho puntos del contenido del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales. Y que, un año después, se distinga el Plan Rector de Uso y Gestión del Parque. Y todavía más lejos, ya que dependerá al final de los resultados de la política de implantación de espacios protegidos en Euskadi (Txingudi, Urdaibai, Valderejo, Gorbea, Leizaran, Belagoa, Irati, Bardeak y los otros). Porque está claro que es un compromiso complejo el integrar la población en los espacios protegidos cuando se trata de un área pequeña, humanizada, congestionada, deprimida... y esperanzada. Tenemos que aprender a convivir con el siglo XXI.**